

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Gazte Festekin bat egin dute urnietarrek

Aurreko asteburua ekitaldiz beterikoa izan da Urnietan. Haurrak, helduak eta, nola ez, gazteak asetzeko moduko hitzorduak ez dira falta izan / 16

AIURRI

Euskaltzaleon martxa

Euskalgintzaren Kontseiluaren deialdia, datorren ekainaren 13rako / 3

Leizaran Briko Goros taldeko kideak dira aste honetako Matxeko protagonistak / 7

Haurren Euskal Jaialdiaren edizio berria izango da, igande honetan, Andoaingo kaleetan / 16

AZKEN GUDA KANTXA

ERREMONTARI 2020

LEHEN PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA • 3. SETA, 8 TANTORA
ANSA II · ZUBIRI vs SEGUROLA · LARRAÑAGA

BIGARREN PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA • 3. SETA, 8 TANTORA
GOIKOETXEA V · JUANENEA vs ALDABE · BARRENETXEA IV

ERREMONTARI

SAHARRAK

QR CODE

18:00etan / GALARRETA JAI ALAI

ORNA, AIA, ALARRENEA, PETITEN, ERREMONTARI, HERRIBANKA UDALA, Orona, 65 SUKIA, EL PLANO VASCO, VOLVO, AIURRI

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



AIURRI



UDAL MUSIKA ESKOLA

Egunean Behin, Tokikom Liga

Tokikom Ligako hirugarren astean, Aiurri (Beterri-Buruntza) taldeko partaideen artean, zozketa egin da eta irabazlea "Mikelog" lasartearra izan da. Dagoeneko jaso du Mizpiradiko sagardo-botila sorta, Aiurrikoen eskutik. Aurreko bi saridunak "Nago" urnietarra eta "Mariaje" lasartearra izan dira.

Euskal Herriko onenari saria

Kerman Miguel Novoa Andoaingo Udal Musika eskolako ikasleak "XIV J. Crisostomo de Arriaga" nazioarteko gitarra txapelketan saria lortu zuen aurreko asteburuan. Larunbat goizean izan zen txapelketa Bilboko Kontserbatorioan eta, dagoeneko, hirugarren urtea da andoaindarrak saria etxera eramaten duela.

KOMUNITATEA

GKS BETERRI-BURUNTZA

Buruntzaldeko jardunaldi politikoak

Ekainak 4, osteguna
Astigarraga
18:30, Erribera Kulturgunea.
Hitzaldia: "Turismoaren negozioa eta gazte langileen emantzipatzeko ezintasuna".

Ekainak 5, ostirala
Hernani
18:30, Kontrakantxa Gaztetxea.
Dokumentala: Indar errepresiboak atzo eta gaur. "El triángulo de la muerte" dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia. Ondoren, pintxo-potea.

Ekainak 12, ostirala
Lasarte-Oria
18:30, Andatza plaza.
Graffiti, mural eta soinu ekipo tailerrak. Ondoren, kontzertu akustikoa.



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzailak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urniet).
Diseinua: Golena / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



DEIALDIA

EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA EUSKAL HERRIA

Euskaltzaleon martxa

Ekainaren 13an Iruñeko kaleak Euskal Herri osoko euskaltzalez betetzeko mobilizazio jendetsua antolatzen ari gara Euskalgintzaren Kontseilua osatzen dugun eragileak, «Euskaltzaleon Martxa» lelopean.

Izan ere, azken hamarkadetan berreskurapen ziklo bat gertatu den arren, gero eta gehiago dira euskararen etorkizunaren gaineko kezka eta larritasuna adierazten dizkiguten datuak eta ikerketak. Zailtasun horiei erantsi behar zaio euskararen biziberritzearen aurka bizi dugun oldarraldi antolatua.

Hala ere, sinetsita gaude posible dela euskararen biziberritzeari bultzada ematea, abenduaren 27ko ekitaldian aldarrikatu genuen bezala, Pizkunde berri bat eragitea, eta horretarako ezinbestekoa dela euskaltzaleen giharra indartzea. Horretara dator ekainaren 13ko mobilizazioa, euskaltzaleok antolatzea, euskaraz bizitzeko baldintzak sortzera, «Euskaraz bizitzeko behar den dena» aldarrikatzera.

Martxa arratsaldean egingo dugu. 17:00etan Iruñeko hiru puntu ezberdinetan bilduko dira herritarrak: Antoniutti, Runako Parkea eta Askatasun Enparantza.



Puntu hauetatik Iruñeko kaleak harrotasunez beteko dituzten hiru zutabeak abiatuko dira. Zutabeek bat egingo dute Gazteluko Plazan, eta bertan egingo dugu ekitaldi politikoa, amaiera berezi bat emanez.

Zutabeetako bakoitzak euskaraz behar duen Pizkunderako ezinbestekoak diren hiru oinarrietako bana ordezkatu du: Ofizialtasun osoa, Jauzia hizkuntza politiketan eta Euskaltzaletasuna.

Lehenengoa, euskaraz Euskal Herriko lurralde guztietan ofizialtasun osoa izan dezala aldarrikatuko duena: Ipar Euskal Herrian koofizialtasuna, Nafarroan euskararen zonifikazioa gainditu eta ofizialtasuna lurralde osora hedatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan oldarraldiaren ondorioz eragiten ari den desofizializazioaren aurrean euskararen normalizazioa blindatuko duen arkitektura juridiko berri bat.

Bigarrena, hizkuntza politiketan jauzi bat eragiteko asmoz erakundeak, alderdiak eta eragile sozialak interpelatuko dituen, euskararen ezagutza orokortuko duten politiken eta erabilera normalerako baldintzak sortuko dituzten neurrien alde.

Eta hirugarren zutabea, euskaltzaleen euskararen euskaraz bizitzeko duena, azpimarratuz egunerokoan euskaltzale gisa jokatzeko garrantzia eta euskaltzaleak elkarrekin antolatzearen premia.

Euskal Herri osoko euskaltzale guztiak deitzen ditugu Euskaltzaleon Martxan parte hartzera. Mundua euskararen eta euskaldunon aurka datorren honetan, guk euskara dugu munduaren alde.

Euskaltzaleon garaia da!

Bus zerbitzua, Beterri-Buruntzatik

AEK euskaltegiak autobus zerbitzua antolatu du. Aiurriko Komunitatea atalean deialdiaren berri eman du egunotan: "Zer egin dezakegun euskaltzale gisa? Bada, datorren ekainaren 13an Iruñean dugu hitzordua.

Giro ederrean aldarrikatuko ditugu euskaldunon hizkuntza eskubideak, egitarau oparoak horretarako beta emango baitu.

Arratsaldeko ekitaldian joateko autobusa antolatu du AEK. Hernanitik 15:00etan abiatu ondoren, Astigarraga, Urnieta eta Andoaindik pasako da. Itzulerako autobusa 19:30ean abiatuko da Iruñetik. Txartelak 15 euroan daude Andoingo eta Urnietako AEK euskaltegietan.

Euskaldunon martxari buruzko informazio guztia topatuko duzue www.pizkundera.eus webgunean".

Egunean Behin jokoaren 21. denboraldia hemen da!

AIURRI TOKIKOM LIGA

Animatu eta batu zaituz Tokikom Ligako AIURRI taldera
(maiatzaren 11tik aurrera, aplikazioko zure abatarrean klik egin)

Bilkura, Kaimuturrean

Israeleko armadaren esku egon ziren Flotillako kideei elkartasuna adierazteko elkarretaratzea egin zuten Andoainen, aurreko ostegunean. Ezaguna denez, Loiuako aireportuan istiluak izan ziren eta Ertzaintzaren aurkako salaketak ez dira gutxi izan. Gertaerak salatzeke eta elkartasuna adierazteke bildu zen dozenaka lagun.



AIURRI



URNIETAKO UDALA

Bilketa solidarioa

Ekainaren 5ean eta 6an elikagaien bilketa-solidarioa egingo dute. Udaberriko kanpaina deitu diote eta Gipuzkoako hainbat saltokietan egingo da. Tartean, Andoainen. Ezaguna denez, kanpaina boluntarioei esker egin ohi da. Bi telefono-zenbaki jarri dituzte laguntza eman nahi duenarentzat: 943 116 150 (Andoaingo Caritas) eta 608 773 737 (Andoain Solidario).



AIURRI

Murala, kalean

Urrietako Egape Ikastolako eta Salestarrak Magale Ikastetxeko ikasleek horma-irudi bat margotu zuten aurreko astean. "Kultura aniztasuna aberastasuna da" lelopean. Egindako jarduera ikusgai dago Santa Leokadia kaleko igogailuaren ondoan. Ekimena Eskolako Agenda 2030 ekimenari lotuta dago.



URNIETAKO UDALA



AIURRI

Eskolarteko Agenda 2030

Andoaingo Eskolako Agenda 2030 programan parte hartzen ari dira Aita Larramendi ikastolako, La Salle Berrozpe ikastetxeko, Ondarreta Herri Eskolako eta Leizaran Institutuko ikasleak. Aurreko ostegunean esku-hartze planen berri eman diete udal ordezkari,

pleno aretoan bertan egindako aurkezpenean. Ikasleek bi esku-hartzeen berri eman zuten: batetik, herri irisgarri eta garbi baten aldeko egindako lanketa. Eta, bestetik, eskuko telefonoak eta haren erabilerari buruz jasotako datuak.

Partaidetza prozesua

Partaidetzako aurrekontuen edizio berria martxan da Urnietan. Udalak dagoeneko partaidetza-datuak eman ditu: 273 galdetegi jaso dituzte, denera, eta horietatik guztietatik 10 hobekuntza aukeratu dituzte. Udal erakundeak iragarri bezala, udal aurrekontuko 150.000 euro hobekuntza horietarako bideratuko dira.



Urnietako
udala

Ikasturte amaierako saioa

Aurreko asteburuan antzerkigileek hartu zuten Bastero Kulturguneko auditorioaren oholtza. Dozenaka ziren eta, haiei begira, lagun eta etxeko ugari. Herriko ikastetxeetan eta Bastero Kulturgunean, adin-tarteka antolatuta, antzerkigintzan jardun dutenek erakustaldia eman zuten. Bide batez, ikasturteari amaiera emateko erakustaldia izan zen.



AIURRI

Arduradun berria Intza kafetegian

Andoaingo La Salle hiribidean dagoen Intza kafetegi-okindegiaren ardura hartu du, berriki, Jone Rodriguez Azurmendik. Zumea plazako Tahonan hamarkada luzea egin ostean, erronka profesional berriari ekin dio

Erredakzioa ANDOAIN

Zumea plazako negozioan egin-dako lanaldiari esker, aski eza-guna da Andoainen Jone Rodriguez Azurmendi. Aro hura amaitu eta berria abiarazi du, Andoaindik irten gabe, Intza kafetegian, hain zuzen. Maia-tzaren 4an irekiera-ekitaldia egin zuen eta, geroztik, zabalik dago. Aukera zabala dago kafe-tegian: ogia, pintxoak, gosaltze-ko hamaika aukera... Ordu-tegia:

- Astelehena-ostirala:
08:00-14:00 / 17:00-21:00.
- Larunbata: 09:00-14:30.
- Igandea: atseden eguna.



La Salle hiribidean, behatoki ederreko terraza dauka Intza kafetegiak. AIURRI



Jone Rodriguez. AIURRI



Bezeroek aukera zabala daukate Intza kafetegian. AIURRI



Finala jokatu osteko sari banaketa ekitaldia. AIURRI

Porraren saria, emaitzara gehien gerturatu denarentzat

Buruz buruko finaleko emaitza 22-6 izan zen, Darioren alde. 185 proposamenen artean ez zuen inork asmatu

Erredakzioa ANDOAIN

Aiurriko porran agerikoa izan da, inguruotan, Artolaren aldeko zaletasuna handia dela. Datua argia zen: porren %90 pasatxo Artolaren aldekoak ziren. Aiurriko saria, halere, Dario garaile jarri zutenen artean aurkitu

behar. Izan ere, errioxarra izan zen garaile. Klaudio Rezolak 22-7koa jarri zuen eta, hura denez gehien gerturatu den emaitza, andoainarrak eskuratuko du, datozen egunotan, Artolak sinatutako pilota eta Kuttun gozotegiko tarta. Zorionak!





1856ko zedarria Burdinak zaintzen duen Gordelekuren sarreran, ikusgai jarri dute. AIURRI

Madril eta Irun arteko mugarri kilometrikoak

Karrika auzoan, Madril eta Irun batzen dituen errepide zaharreko bi mugarri edo zedarrri kilometrikoekin lanketa egin dute Burdina elkarteko kideek azken aldian. Zaharrena, Gordelekun jarri dute ikusgai, azalpenekin batera

Xabier Lasa ANDOAIN

Bata, zutik irauten duena oraindik, txukundu egin dute. Bestea, berriz, txukundu ez ezik Gordeleku museoan jarri dute ikusgai, beste makina bat elementu historiko eta etnografikoen ondoan.

Zedarrri horiek, iraganean, errepide bazterrean jartzen ziren, errepide erabiltzaileek jakin zezaten distantziak kalkulatzeko.

XIX. mendeko zedarria

Horietako bat, Istuitzaga etxearen parean, errepide bazterrean zutik mantendu izan da XX. mendean barrena jarri zutenetik, eta txukundu egin dute. Oraindik orain Karrikako puntu hori Madriletik 449 kilometrora dagoela adierazten du.

Bigarrena, berriz, Istuitzaga etxean zainduta eduki dute hamarkadetan. Burdinako kideek adierazi dutenez, “1856an fundizioz eraikia da, pieza oso batean; fusiorik edota soldadurarik gabekoa da, hobeto mantendu zedin”.

Zedarrien historian atzera joanez, Burdinako kideek gogorarazi dute 1856a arte, zedarriek zaldien oina izaten zela erabiltzen zen “vara” edo neurria. Distantzia handiagoak zirenean, berriz, “legoak” erabiltzen ziren; hots, pertsona batek edo zaldi batek ordubetez oinez egin dezakeen distantzia, 5,5 kilometro gutxi gora behera.

Bestalde, aipatzekoa ere bada, XVIII. mendean Carlos III. Borboikoaren garaiaz geroztik distantziak era erradial batean egiten hasi zirela, armiarma sare baten antzera. Horrela, Estatu espainiarrean, Madrilgo “Puerta del Sol” abiapuntutzat hartuta kalkulatzeko ziren distantziak.

Isabel II. Borboikoaren garaian (1833-1868) sistema erradial horrekin jarraitu zuten, baina zedarriak kilometrotan adierazten hasi ziren. Era horretan, “aipaturiko Karrikako burdinazko zedarriak 446k nomenklatura dauka agerian, eta horrek

esan nahi du zein puntu kilometroan gauden Madriletik”.

Halaber, kontuan hartzeko datua ere bada, garai hartan Gipuzkoa eta Araba elkartzen zituen errepidea Lizarrate pasabidetik (San Adriango tunela) pasatzen zela. Alde horretatik, “446 zenbakia bat dator Madril eta Andoainen artean zegoen distantziarekin”.

Bigarren mugarria, Karrikan bertan zutik

Istuitzaga etxearen parean dirauen bigarren mugarriak 449 kilometroa markatzen du; bestea baino berriagoa da, XX. mendean barrena ipinia da, jada N-1a Madril-Irun errepidea egin zenekoa.

N-1a Karrikan sartu eta Etxeberrieta, Zumea, Kale Berria, Bastero eta Bazkardo gurutzatzen zituen errepide horrek, Oria auzoranzko bidea hartu aurretik. 1972az geroztik zeharbideak egiten hasi ziren eta mugarri horiek beren funtzioa galdu egin zuten. Gainera, azken urtetan makina



Madril-Irun N-1 errepide zaharrean, 449. kilometroa markatzen duen zedarria txukuntzen aritu dira azken aldian. BURDINA



N-1eko zedarria, txukuntzaren ostean. AIURRI



Gaztetxearen pareko zedarriak, N-1 errepide zaharrean Donostia 16 kilometrora zegoela zehazten du. AIURRI

bat azpiegitura eraiki dira (ingurabideak, saihebidak...) errepidean edo honen bazterretan. Aldaketa horien eraginez, Horrela, lau bat kilometrotan laburtu da Madril eta Irun arteko errepidea azken urtetan.

Azkenik, Burdinako kideek adierazi dute XIX. mendean zutitutako mugarria, Gordelekuan ikus litekeela. Eta gaineratu dutenez, “bertara egin litezke bisitak; aldeztu aurretik hitzartua bada taldeko boluntarioen bidez gidatua izan daiteke. Horreta-

rako 669487683 (Txanka) telefonora hots egin behar da”.

Gaztetxearen pareko mugarria

Bi zedarrri horiengandik nahiko gertu, Gaztetxearen parean hain zuzen, bada hirugarren mugarria. Espaloiaren gainean dago, harrizkoa da, eta Donostiara iristeko 16 kilometro geratzen direla markatzen du. Iraganean, Donostia helmugatzat hartuta, Gipuzkoa mailan jarri ziren makina bat zedarrri kilometrikoetako bat da.



Ane Escribano, Maren Aranburu eta Nora Amas jokalariai. MATX

Leizaran Briko Goros taldeko kideak, Matxeko protagonista

Nora Amas, Maren Aranburu eta Ane Escribano jokalariai kameraren aurrean ageri dira hainbat proba egiten

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Leizaran Eskubaloia klubeko jubenil mailako jokalariai dira Nora Amas, Maren Aranburu eta Ane Escribano eta, aste honetan, Matx tokiko kirolaren sare sozialeko protagonista dira.

Aste osoan, Matx.eus webgunean argitara emango dira hainbat bideo. "Zenbat dakizu" atalean, esaterako, Andoaingo bost galdera erantzun behar dituzte Amasek eta Ecribanok. Hona, lagintxo: Zer datoz lehenago: Sanjuanak ala Kaletxikiko jaiak? Santa Krutz jaietako maskota berriak nola izena du? Nola izena du Andoaingo mendigoizale elkarteak? Eta euska-

ra elkarteak? Asmatu ote dute erantzunetan? Hori frogatzeko bideoa ikusi behar da.

Aranburuk eta Amasek, bestalde, "Galdetegi azkarra" erantzun zuten. Non dago Ezpeleta herria? Zein kirol praktikatzen du Enara Gamindek? Nongoa da Getaitri kirol taldea? Zer da hutsarte bat? Guztiak erantzun zituzten. Ondo ala gaizki? bideoa ikustea da onena.

Bestalde, "Abilezia joko" delakoan, hirurek ere edalontzi berrerabilgarriekin jolas dibertigarrian parte hartu zuten.

Matx, esan bezala, tokiko kirolaren sare sozialeko da eta bertako kide da Aiurri.



Nahia Zudaire. MATX

'Matx' podcastaren bigarren denboraldia, Aiurri.eus gunean

Tokiko kirolaren sare sozialeko podcastaren bigarren denboraldia estreinatuta du. Hala, lehen gonbidatua Nahia Zudaire igerilaria izan da. Oraingo honetan ere, Basque Team fundazioarekin elkarlanean ekoiztutako saioa da: kirol minoritarioetan gorenean dauden euskal kirolariak elkarriketatuko dituzte. Hori da, hain zuzen, Nahia Zudaire zubietarraren kasua. Ez dira ohiko kirol elkarriketak izango; kirolaz hitz egingo bada ere, kirolarien beste aldea eza gutzeko helburua izango du saioak. "Ohiko kirol elkarriketak alde batetara utzi eta kirolariekin ondo pasatzea nahi dugu" adierazi du saioa aurkezle Aratz Losadak.

Ate-irekiak, Allurralden

"Zatoz konpromisorik gabe. Proba egin, ez duzu sarrera ordaindu beharko". Buruntzaldea IKT igeriketa-taldeak ate irekiak jardunaldia antolatu du Allurralden. Bi hitzordu iragarri ditu hilabete honetan:
Ekainak 15, astelehena.
17:00-17:45.
Ekainak 17, asteazkena.
17:00-17:45.



BURUNTZALDEA IKT



ITURZAETA

Iturzaeta memoriala

Aurrera doa Iturzaeta memoriala, Sorabillako pilotaleku irekian jokatzeko txapelketa. Argazkian, aurteko lehiaketan parte hartzen ari diren Maider-Emeren eta Saioa-Narrea bikoteak. Ohikoan, partidak ostiral arratsaldean, larunbatean egun osoan eta igande goizean jokatzeko dira.



GEPE

Gipuzkoako txapeldunak

Final estuan, Andoaingo Gaztelekuk Ilunpe taldea gaitzuen (45-39) Gipuzkoako Ezker Hormako txapelketan. Ibon Altuna Zabalak eta Aritz Rekalde Ezkurak nagusitasuna erakusten darraite, urtez urte.

45 GAZTELEKU (Ibon Altuna Zabala-Aritz Rekalde Ezkurra).

39 ILUNPE (Eneko Martija Arozena-Mikel Sanchez Rementeria).



AIURRI

Denboraldi amaierako festa

Leizaran eskubaloia elkarteko dozenaka lagun elkartu zen aurreko ostiralean, Zumea plazan jarri zuten olatan. Afariak eta dantzaldiaz gozatu zuten denek, hots, jokalariek, prestatzaileek, gurasoek eta zuzendaritza-taldeko kideek. Udako oporraldiari ekiteko garaia da eta, ikasturte berrian hasiko dira prestatketa-lanak.

Partaideen gustuko proba

Laba Gravel bizikleta-probaren edizio berria igaro da. Larunbatean, goizeko ordu txikietan hasita, Zumea plaza lasterketaren abiapuntu eta helmuga bilakatu zen. Partaideek 70, 110, 170 eta 270 kilometroko probatako bat zuten aukeran

Eredakzioa ANDOAIN

Leitzaran, Artikutza, Bidasoa eta Aralar aldean ibilbide ikusgarria egokitu du antolakuntzak, beste urte batez. Distantziak, ordea, ez dira arinkieriaz hartu behar eta proba burutu ahal izateko prestakuntza-maila izan behar da. Bereziki, estuasunak eta sufrikarioak saihesteko. Izan ere, 70, 110, 170 eta 270 kilometroko probatako bat egiteko eskarmentua izatea garrantzitsua da. Laba Gravel proba partaideen gustukoa da eta, antolaketa bermatzeko indarra dagoen bitartean, paisaia ikusgarrietan murgiltzeko zortea izango dute partaideek.

Hainbat partaideren mezuak proba amaitu berritan

Antolaketak probaren partaideekin harremana sustatzeko taldea sortu du, sare sozial ezagun batean. Aurreko egunetan eta, larunbatean bertan, argibide ugari emateko baliagarria izan zen mezu-trukea. Behin proba amaituta, balorazioa egiteko ordua iritsi da. Haietako batzuren azalpenak, jarraian:

Mikel: “Eskerrik asko antolakuntzari. Egia esan, proba hamarrekoa izan da eta hornidura eta helmuga gozamena. Eskerrik asko, datorren urtean ikusiko dugu elkar” (euskaratutako mezua).

Joseba: “Eskerrik asko antolakuntzari. Proba ederra, ikaragarri gustatu zait. Ambiente itzela, baita txirrindularien artean ere. Datorren urtean berriro egiteko irrikaz nago. Gora Laba!”.

Aitor: “Eskerrak antolakuntzari. Primerako proba daukazu, hornidura-gune ederra, giro ederra! Datorren urtean ere itzultzeko gogoz!!”.



Goizaldean behelainoa nagusitu zen Laba Gravel proban. AIURRI

Ander: “Zorionak Laba Gravel-eko antolakuntzari! Nik ez dut egunik onena eduki eta oso atentu egon dira nirekin. Hurrengo urtean, bai edo bai. Eskerrik asko!”.

Jose M: “Harrigarria 270ekoa! Paisaiengatik eta gogortasunagatik!! Zorionak!” (euskaratutako mezua).

Argazki-sorta Aiurri. eus webgunean ikusgai dago.



Mikel Iturria urnietarra, ezkerrean, goizaldean ateratako argazkian. AIURRI



Urtzi Ugalde andoaindarra. AIURRI



Ohi bezala, Arruti gozotegia goizaldean ireki zuten. AIURRI



270 kilometroko ibilbidea egin zutenen irteera, goizeko 05:00etan. AIURRI

Datu azpimarragarri ugari



Mauletarrak, Laba Gravel lasterketan. AIURRI

Ipar Euskal Herriko ordezkariak Mauleko hiru lagun hurbildu ziren Zumea plazara, eta goizeko 08:00tan abiatu ziren 170 KM-ko ibilbidea osatzera. Argazkian, Esconobiet Corentin, Pierre Dubuordieu eta Mathis Rodrigues.



70 kilometroko ibilbidea osatuta iritsi ziren Zumea plazara. AIURRI

Emakumezkoak Edizio honetan emakumezkoen partaidetza sustatzeko ahalegin berezia egin dute. Hain zuzen, goizeko 11:00tan emakumeentzako irteera antolatu zuten. Pili Bodegas eta Naiara Irurita izan ziren bidegileak.



Izen-ematea kudeatu zuen lantaldea, Zumea plazan. AIURRI

Boluntarioak Ezinbesteko laguntzaileak dira LABA Gravel lasterketa egin ahal izateko. Goizaldean hasi eta gauera bitarte, ahalegin berezia egiten dute lasterkarien esperientzia ahalik eta onena izan dadin.

Finalean ere, garaile

Nerea Arruti urnietarrak eta Malen Barrenetxea hernaniarrak 13:20 minutu behar izan zituzten lau enbor mozteko, eta minutu erdiko alde atera zieten Uxue Ansorregiri eta Maika Ariztegiri, Astigarragan igandean jokatu zen Rural Kutxa txapelketaren finalean. 23 urtez azpikoen gizonezkoetan, berriz, Oier Mitxelenak eta Jakes "Izeta V" k jantzi zuten "Izar Berriak" txapela.



IZAR BERRIAK



Andoain BAT

Agenda bateratua: Udaleko eta herriko ekintzen topagunea.

Andoaingo Udalak "ANDOAIN BAT" kaleratuko du, herrian antolatzen diren jarduerak bilduko dituen agenda **bateratua**. Proiektuak hiru dimentsio izango ditu: aplikazioa, webgunea eta eskuorria.

- **Mugikorrerako app-a**
Ekitaldi guztien agenda eta gehiago. Eskaneatu QR kodea aplikazioa deskargatzeko.
- **Webgunea**
Kontsultatu guztia andoainbat.eus webgunean, beti eguneratuta.
- **Eskuorria**
Hilabeteko programa paperean. Herriko gunehetan eskuragarri egongo da: Ataria, Ambrosia Olabide, Urigain, Arrate, Bastero Kulturgunea, Liburutegia, Gazte Lokala, Ludoteka eta Allurralde.



Android



iOS







Plazan dantzan aritu zirenak, pregoia irakurtzen eta suziriak jautzen aritutakoak eta balkoiaren alde banatan ziren kide guztiak, elkarrekin, Kontsejupean ateratako argazkian. AIURRI

Aipamen berezia, bidegileei

Ostiral iluntzean, Gazte Festei hasiera emateko ekitaldian, balkoiaren alde banatan ageri ziren atzoko eta gaurko Egapekideak. Egokia zen, plazatik begiratuta, irudikatzen zutena: oraina eta iragana. Eta, hein handi batean, hori izan zen pregoiaren mamia

Jon Ander Ubeda URNIETA

"Mila esker Urnietako elkarteei Gazte festetako txupinazoa botatzeko aukera Egape Dantza Taldeari emateagatik. Aurten oso pozik gaude, Egape dantza elkarteak hogeigarren urtemuga ospatzen baitu. Urte hauetan guztietan egindako lanen ondorioz Euskal Herrian eta beste herri batzuetan ere ezagutzen gaituzte. Gainera, gure taldeak Nazioarteko Developpe txapelketa internazionala irabazi du aurten, Euskal dantza atalean. Hau guztia posible izan da Ma-

ria, Axun, Ane, Ixabel, Jaione eta Korori esker, haiek hasi baitzituzten elkarte osatzeko lanak. Eta, nola ez, Edu Muruamendiari. Koreografoen bidez erakusten digun guztiagatik, bera gabe ezin genuke egin. Horregatik, Eduren talentuari esker, Euskal Herriko euskal dantza talde ezberdin eta berezia gara. Aupa Edu eta Egape Dantza Taldea!". Hitzez hori adierazi zuten, baina pregoia garago joan zen: dantza-sorta izan zen pregoiaren preludea. Dantza egitea ezinbestekoa baitzen.




Dantza erakustaldi berria egin zuten Egapeko kideek, San Juan plazan, Gazte Festen hasierako txupinazoari ekin aurretik. AIURRI



Egape Dantza Taldeko sustatzaileak, balkoian. AIURRI



Pregoiaren bidea ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. AIURRI



Suzirietako bat irtetear zegoen unean. AIURRI



EDTren XX. urteurreneko zapia oso presente dago oraindik. AIURRI



Adarra jo txaranga, Urnietako kaleetan, Gazte Festen hasieran. AIURRI



Erraldoiak eta buruhandiak, atsedentartean. AIURRI



Buruhandiak jo eta su aritu ziren kalez kale. AIURRI



Kalejirari "Kantazaun" izen bereko kantuarekin ekin zioten. AIURRI



Euskal kantagintza biziberritzen lanean ari da Kantazaun. AIURRI

Gazteak, gatza eta piperra

Poxta Zahar gazte kuadrillen elkarteak eta, oro har, Urnietako Gazteak dira jaiekin gehien gozaten dutenak. Izan ere, adin-tarte hori aintzat hartuta antolatzen dira jaiak. Ostegunean pinto-potearekin ekin zioten asteburu luzeari



Umorez blai, urnietar askoren harridura eta irriak eragin zituen Cayetanoen moda Urnietara ekarri zuen kuadrillak. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Poxta Zahar gazte kuadrillen elkarteak abiatu zuen asteburua, egitarauari egun bat gehiago erantsiz. Hala, ostegunean pinto lehiaketaren edizio berria antolatu zuten. Aurten hiru taberna animatu ziren parte hartzera: Frontoi, Kantoi eta Riojanos. Dastaketara hurbildu ziren bezeroak bilakatu ziren epaimahaikide. Behin iritziak jasota, Poxta Zaharreko antolatzailleek irabazlearen oroigarria Riojanos tabernako kideei ematea erabaki zuten. Zer esanik ez saridunek pozarren hartu zutela garaikurra. Kantoiren lekukoa hartu du Riojanosekoek, beraz, pinto lehiaketan.

Ostiralean olinpiadei amaiera eman zieten, jolas dibertigarrien bitartez. Eta, denborarik galdu gabe, mozorroen afarira hurbildu ziren gehienak. Gaua musika doinuen pean luzatu zen eta, biharamunean, jaiak ekitaldiz beteriko egunarekin izan zuen jarraipena: poteoa, bazkaria, musika doinuak... gozatu ederra hartu dute jai bere osotasunean bizitzeko aukera izan dutenek. Igandekoa atsedean eguna izan zen gautxorientzat.



Jakutegi plazara esandako orduan hurbildu zen kuadrilla. AIURRI



Modako janzkera izan zela zalantzarik ez da. Zein garaikoa, hori beste kontu bat da.



Finala serio-demonio hartu zuten partaideek. AIURRI

Olinpiaden amaiera

Interes bizia piztu dute olinpiadek 2026an eta hori nabaritu zen finalaren egunean. Ostiral arratsaldean kuadrilla ugari elkartu zen azken jolasetan hartzeko edo, besterik gabe, finalaren ikusle izateko.



Hitzak asmatzea zen jolasetakoa. AIURRI

Pintxorik onena, Riojanosekoa



Riojanos. POXTA ZAHAR



Pozarren, Riojanosen. POXTA ZAHAR



Kantoi. POXTA ZAHAR



Frontoi. POXTA ZAHAR

Biba Etxeberri plaza!

Auzunean jarri zuen bertako Jai Batzordeak ospakizunetarako eremua: bost eurotan eros zitezkeen bokatak eta zuzeneko musikaz gozatzeko oholtza. Ai ama! erromeri taldea izan zen Etxeberri plaza girotu zuen taldea, ostiral gauean



Auzoko Jai Batzordeko kideak eta laguntzaileak, ostiral iluntzean. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Gizarte eragileek aberastu egiten dute herri-giroa. Azken urteotan, urteko sasoi ezberdinetan, Etxeberri plazako Jai Batzordeak, auzoari eta herriari begira, eskertu beharreko lana egiten dihardu. Aurreko ostiralean, esaterako, oholtza egokitu, musikarekin plaza girotu eta bertan afaltzeko aukera eman zieten herrikideei. Hala, Etxeberri plaza herriguneko festagune bat gehiago izan zen.



Jai Batzordeak, auzoari eta herriari begira, eskertu beharreko lana egiten dihardu. AIURRI



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Taldekieak, Etxeberri plazan, emanaldiaren aurreko uneetan. AIURRI

Ai, ama!, erromeri-talde bikaina

Ai Ama! erromeria taldeak girotu zuen Etxeberri plazako jai, Gazte Festen baitan, aurreko ostiralean. Xuban Ugaldek, Lier lartzak, Ekhi Barrenetxeak, Aner Elgarrestak, Ander Lertxundik eta Mikel Lertxundik osatzen dute taldea. 13-16 urte bitarteko musikariak dira guztiak. Gazteak inondik ere, eta orain bi urte eta erdi talde gisa oholtzara igo zirenetik, makina bat alditan entzun behar izan dute zeinen gazteak diren. "Hasieran jende asko harritzen zen gurekin, baina plazetan jo ahala, normaltzen ari dela gure presentzia esango genuke". Amasa-Villabona, Hernani, Aduna, Tolosa eta Urrietakoak dira, eta amankomunean dute Kristina Solano izan dutela irakasle, trikitiarekin eta panderoarekin.

Aia Ama! izenaren jatorria

Aitorzen dute ez zutela gehiegi pentsatu behar izan, entsegu batean sortu zen pasadizu bati heldu ziotela: "entsegu batean, batek akatsa egin zuen nota batekin, eta Ai Ama! Oihu fina atera zitzaion amorrazioz. Grazia eman zigun besteei, normalki hitz poltikogoak erabiltzen ditugulako haserre adierazteko. Bada, horrelaxe, esamolde horrekin geratu ginen".

Nahiko eskarmentua egina daukate jada, jendaurrean jotze kontu horretan. Musika eskolako entzunaldietan hasi ziren, gero binaka ekin zioten, eta azkenean, seiak elkartzea erabaki zuten, plazetan erromeria giroko dantzaldiak egiteko.

Udari begira, berriz, zortzi dantzaldi lotuta dauzkate jada, Ai Ama!-ren oihartzuna dexente ari baita zabaltzen Tolosaldean eta Beterri-Buruntzan. Euskal kutsuko abestiak jotzen dituzte, erromeria giroko klasikoak eta modernoagoak (La Txama, Esne Beltzak, Dupla...) uztartzen saiatzen dira, nahiz eta rantxerak eta antzeko doinu dantzagarriak ere sartu errepertorioan. "Unean-unean egokitzen den plazaren eta jaiaren arabera, adin guztietako publikoarentzat jotzen saiatzen gara. Prest gaude edozein adineko jendea dantzan jartzeko! Gertatu izan zaigu gure aiton-amonak izan zitezkeenak edukitzea aurrean, eta oso gustura aritu gara".



Taldekieak emanaldiari hasiera emateko gogoz zeuden. AIURRI

Kuadrillen eguna

Arrantzalez jantzita hurbiltzeko deiak arrakasta handia izan zuen gazteen artean: mahoizko jantziak, zapiak eta kamiseta nahiz alkandora zuriak gehiengo ziren larunbateko ospakizunaren partaideen artean. Bazkari jendetsua egin zuen plazan



Paella ederra eta Altuna sagardotegiko sagardoa: osagai bikainak herri-bazkarirako. AIURRI



Bazkaria eserik egoteko tarte bakanetakoa izan zen larunbatean. AIURRI



Lagunartean bazkaltzeko mahai ugari jarri zituen antolaketa-taldeak. AIURRI



200dik gora lagun elkartu zen San Juan plazan, larunbatean. AIURRI



Kuadrillen eguneko bazkaria Gazte Festen hitzordu jendetsuena da. AIURRI



Sarbide erakargarria, Egape ikastolako jolastoki estalian. AIURRI

Zirkua eta antzara jokoa



Jarduera ugaritan trebatzeko aukera ematen zuen igande goizeko planak. AIURRI



Familia-giroko jolasak, antolatzaileen begiradapean. AIURRI



Larunbat goizean ere euskal dantzak nagusitu ziren San Juan plazan. AIURRI

Dantzari txiki eguna



Dantzariak ikasturtean ikasitakoa erakusteko aukera baliatu zuten. AIURRI



Edu Muruamendiarazen esanetara aritu ziren dantzari txikiak. AIURRI

Kontsejupeko finalak

Aurre-benjaminak: Inar Larrea, txapeldun; Xuhar Lizaso, 2.postua.
Benjaminak: Oñatz Zubeldia, txapeldun; Oñatz Telleria, azpitxapeldun.
Alebinak: Beñat Mitxelena, txapeldun; Xabat Larrea, azpitxapeldun.
Infantilak: Iker Belaunzaran, txapeldun; Urko Perez, azpitxapeldun.



AIURRI



AIURRI

AGENDA

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

BERTSOA

ANDOAIN Bertso-afaria

Joanes Illarregi eta Aitor Mendiluze.
20:30, *Ontza elkarte*. 30 euro.
Ekainak 5, *ostirala*.

MUSIKA

ANDOAIN Sol Band Gaza

17:00etan, pintxoak, henna postua
eta artikulua solidariorien salmenta
Plaza Morean. Ondoren, Palestinako
musika taldea.

18:30, *Bastero*.
Ekainak 5, *ostirala*.

URNIETA Kontzertua

Ekintza abesbatza, Imanol Urbietta
Udal Musika Eskola eta Lourdes
Iriondo Udal Musika Eskola kantuan
ariko dira.

17:30, *San Miguel eliza*.
Ekainak 6, *larunbata*.

ANDOAIN Rock Jaialdia

Eguerdian, Aperitif saioak, hainbat
tokitan: Barrk, liingles, Katiuskak.
Arratsaldean, Nafarroa plazan,
Maruja, Exnovios, Lezard, Paco Te
Quiero, Las Petunias eta Silitia.

Ekainak 13, *larunbata*.

AXERI-DANTZA

ANDOAIN Entseguak

Axeri-dantza prestatzeko entseguak.
Entseguak amaituta, fandangoa eta
arin-arina eta zortziko saio irekiak.

19:00-20:00, *Ondarreta*.
Ekainak 8, 10, 16, 18 eta 22.



Artxiboko irudia. AIURRI

ANDOAIN Haurren Euskal jaialdia

Haurren Euskal jaialdia ospatuko da Andoingo kaleetan zehar, Urki Dantza
Taldea antolatuta eta Andoingo Udalaren laguntzarekin. Goizez zein
arratsalde, Euskal Herriko hainbat lekutatik heldutako musika zein dantza
taldeek erakustaldiak eskainiko dituzte han eta hemen.

Ekainak 7, *igandea*.

ODOL-EMAILEAK

ANDOAIN Hitzordua

Hitzordua telefonoz hartzea
komengarria da: 943 007 884.
Internet bidez: gotatanta.eus.

16:30-20:15, *Osasun etxea*.
Ekainak 8, *astelehena*.

BILKURAK

ANDOAIN Pentsiodunak

Andoingo Pentsiodunek deituta.

11:00, *Goikoplaza*.
Ekainak 8, *astelehena*.

SOLASALDIA

ANDOAIN Kulturartekotasuna

Emakume euskaldunen eta jatorri
ezberdinekoen arteko bilkura antolatu
dute.

16:30-18:30, *Arrate*.
Ekainak 9, *asteartea*.

DEIALDIA

URNIETA Alkate txikiak

2017 urtean jaiotako haurren artean.
Informazioa: Urnieta.eus.


Azken eguna: Ekainak 15.

Hogar Extremeñoren Kultur Astea

Larunbat honetan, 12:00tan hasita, agintariei harrera egingo diete Andoingo elkarteetan. Igandean, berriz, bazkaria. Astelehen arratsaldean Mizpiradi sagardotegian dastaketa egingo dute eta, astearte arratsaldean, haurrak izango dira protagonista: marrazki lehiaketa eta jolasak iragarri dituzte. Asteazkena adinekoen eguna izango da. Ohi beza-

la, adinez zaharrena den pertsonari plaka emango diote. Arratsaldeko 18:00tan hasita, merienda izango da 65 urtetik gorakoentzat. Ostegun arratsaldean arrantza hizpide izango dute J.M.Garciaren eskutik. 19:00tan hasita, bestalde, patata-tortilla txapelketa. Ostiralean Extremadurako dantza eta abesbatza emanaldia egingo dute. Eta larunbatean, aldiz, azken traka: miga lehiaketa, toka txapelketa eta sari banaketa ekitaldia.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Cada día nace un listo

Lar., 6. 19:30.

Igandea, 7. 19:30.

Astelehena, 8.
17:00, 19:30.

Shrek

Lar., 6. 17:00.

Ig., 7. 17:00.



AIURRI

“Kerik Gabeko Gazteak 2026”

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak argazki lehiaketa antolatu du, “Bapeatu eta erre gabe denok irabazle” lemapean. Bada, Urnieta Egoa ikastolako ikasleek Gipuzkoako lehen saria jaso dute. Gasteizen egin dute sari banaketa ekitaldia, berriki. .

Colombres herrian kantari

Asturias aldean izan da, aurreko asteburuan, Andoingo Udal Musika Eskolako Abesbatza Txikia. Katrin Iturralde zuzendariaren hitzetan, "haurrek primeran kantatu zuten, eta kontzertu ederra eskaini zuten. Ikusleek, zutik jarrita, txalo-zaparradarekin erantzun zuten".



UDAL MUSIKA ESKOLA